

Markinarrek Peru Abarkako album irabazlea ezagutu dute

Xabier Mendigurenek eta Nuria Hernandezek 'Lurmentzean' lan irabazlea aurkeztu dute udaletxeko areto nagusian.

NEREA BEDIAUNAUNETA

Istori bat idatzi nahi duzunean, kasualitate bila ibiltzen zara Biblioteken Egunagaz bat eginik, Peru Abarka IV. Lehiaketako albuma aurkeztu zuten atzo Markina-Xemeingo udaletxeko areto nagusian. Aurten, berritasun lez, helduei zuzenduriko ipuin lehiaketaz gain, ilustrazio lehiaketa ere egin da.

Aurkezpen ekitaldian, Xabier Mendiguren idazlea eta Nuria Hernandez ilustratzaileagaz batera, Iñigo Ansola Markina-Xemeingo alkateordea eta euskara zinegotzia eta Mari Eli Ituarte epaimahaikidea eta argitaletxeko ordezkaria ere egon ziren.

Bost euroren truke

Krisia dela eta, aurten lehenengo bider, liburua eskuratu nahi izan duenak bost euro ordaindu behar izan ditu. Hain famatu egin den krisiak jota gaude, eta zoritxarrez, Udalean ere igartzen den egoera ere bada, azaldu zuen Iñigo Ansolak.

Krisian sartuta egon arren, alkateordeak datorren urtera begira lehiaketaren apustua mantendu egingo dutela agertu zuen. Izan ere, mota honetako album lehiaketa bat, oso kasu gutxitan ikusten da, gaineratu zuen.

Maila oso ona

Mari Eli Ituarte epaimahaikideak eta Gero argitaletxeko ordezkariak, ostera, jasotako 35 idazleen lan guztien kalitate ona nabarmendu nahi izan zuen. Bestalde, irabazlea erabakitzea ere asko kostatu zitzaiela aipatu zuen. Xabierren narrazioa, hasieratik hartutakoen artean egon zen, baina beste bi lan ere denbora guztian bueltaka egon ziren, eta horietatik batek aipamen berezia merezi duela pentsatzen dugu. Irati Goikoetxea bigarren aldiz finalista geratu da, eta aurten, gainera, bi narraziogaz geratu da finalista, adierazi zuen Ituartek.

Marraskilaritzako lehiaketan ere, oso lan onak aurkeztu zirela azaldu zuen Ituartek, eta aukeratzeko garaian, epaimahaiak gaitz izan zuela.

Deigarria

Nuria Hernandez ilustratzaileak, lehiaketaren berri izan zuenean, aukera ederra ikusi zuela esplikatu zuen. Normalean, ilustratutako albumez hitz egiten duzunean, umeentzako izan ohi dira, eta lehiaketa nagusientzat izatea deigarria iruditu zaitzaidan, gaineratu zuen.

Ilustratzaile bilbotarra motibazio handiagaz aurkeztu zen lehiaketara. Alde

batetik, testua nola egituratuta zegoen asko gustatu zitzaidan, eta kapitulutan banatuta egotean, bakoitzeko eszena egitea posible zen, eta bestetik, ordua zen mota honetako lehia- keta bat Euskal Herrian edukitzea, eta ez hemendik kanpo, azaldu zuen.

Xabier Mendiguren. Idazlea eta editorea

'Lurmentzean' izeneko lanagaz, aurtengo Peru Abarka lehiaketako idazle saritua izan da Xabier Mendiguren idazlea.

Xabier Mendigurenek (Beasain, 1964) bere lehen literatur lehiaketa 20 urte gaz irabazi zuen, eta orain, 25 urte beranduago, Pablo Abarkaren IV. Album Lehiaketako irabazlea izan da.

Aurkezpenean ipuina hiru ideia desberdinetatik sortu zela azaldu duzu. Kasualitatez izan al zen?

Istorio bat sortu nahi duzunean, kasualitate bila ibiltzen zara. Orduan, begiak zabalik eta beti erne dauzkazu, eta handik eta hemendik jasotzen dituzun istorio, aztarna eta irudietan arreta ipintzen duzu. Ez dut esan nahi nik ikusi dudana beste edonork ikusita hark ipuina egingo zuenik. Egia esan, lehiaketa honetarako balioko zuen istorio bat idatzi nahi nuelako, erne nengoen.

Hiru lagunek kontatutako ideietatik sortu duzu ipuina.

Lagun batek autoagaz animalia bat harrapatu zuen, bestetik lurmentzearen ideia zegoen eta azkenik, harreman debekatu bat zegoen. Hortik sortzen da, eta Euskal Herriko bazter galdu batean, nahiz eta tokia izendatu ez, gertatzen da istorioa. Protagonistak gizon bat eta emakume bat dira; topo egiten dute, eta hori da ipuinean kontatzen dena.

Ipuina kapituluka banatuta dago, baina, antza denez, ipuin solteak direla ere badirudi.

Hori esan dute, baina besterik gabe kapituluetan banaturiko ipuin bat da. Lehen kapitulua Errepidean da, bigarrena Hotelean, hirugarrena Logelan, laugarrena Ohean eta azkenik Balkoian. Istorio berbera lekuz aldatzen doa.

Amaierari dagokionez, zer aurreratu daiteke?

Bukaera ireki samarra daukala esan daiteke.

Zenbat denboran idatzi zenuen?

Azkar idatzi nuen; bi egunetan. Zer kontatu garbi ikusi nuenean, di-da batean idatzi nuen.

Nola jaso zenuen irabazi zenuenaren berria?

Ondo [barrezka]. Ilusioa egiten zidan album bat egiteak.

Ilustrazioa ere gustatu zaizu.

Ilustrazioak ondo egokitzen zaizkio istorioari, eta marrazkiak ere ederrak dira.